

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, proiektuaren azalpena emango dizuegu. Hasteko, gure proiektuaren muina geure burua maitatzen irakastea da, eta, hori kontuan izanik hausnarketan eta ekintzetan oinarritutako jarduerak egingo ditugu.

Hori guztia aurrera eraman eta lantzeko, gurasoekin egingo dugu lan: ekintzak egingo ditugu haien pentsaera eta jokabidea aztertzeko hainbat egoeraren aurrean, eta, ostean, azalpenak emango dizkiegu. Lan hori ekintzen bidez egingo dugu, gurasoak hausnarketa egin ahal izateko eta, horrela, gizartean dagoen arazo larriaz ohartzeko eta, bide batez, etxean arazo horiek saihesteko.

Lehenik eta behin, proiektua garatuko den herriko aretoan denak elkartzen garenean, egitasmoa azalduko dugu; hau da, zertan datzan, zein ariketa barnebiltzen dituen, eta zenbat egingo ditugun. Hori guztia azaldu ostean, jarduerari ekingo genieke. Ez dugu jardun nahi irakasle roletik, konfiantza-gune bat izan dadin nahi dugu, hortaz, borobilean esertzea pentsatu dugu, bakoitza eserleku banatan eseri ordez. Txorakeria dirudien arren, aldea nabaria izan ohi da elkarreraginean lan egiten dugunean.

Ariketak 3 multzotan banatuko ditugu: lehenengo multzoko ariketen helburua arazoaz jabetzea izango da; hau da, normalizatu ditugun alderdiez ohartu behar gara aurrera egin ahal izateko. Bigarren multzoko ariketetan egoera bat planteatuko diegu eta horren aurrean nola jokatuko luketen aztertuko dugu. Bukatzeko, hirugarren multzoko ariketekin ikasitako guztia praktikan jarriko dugu.

Orain multzo bakoitzeko ariketa-sortak azalduko ditugu. Lehenengo multzoan hiru ariketa-mota egingo ditugu:

- 1 ariketa (15 min) : Gure saioa galdera batekin hasiko dugu: Zerekin lotzen dugu kirola? Galdera hori askotan egin digute, baina ez gara ohartzen askotan seme-alabak kirola egitera bultzatzean fisikoa aldatzeari soilik ematen diogula garrantzia, eta galdera hori gurasoei egitea idea ona iruditu zaigu. Erantzuna eskuz idatziko lukete, eta, ondoren, denen artean komentatuko genuke.
- 2 ariketa (20 min): Hainbat jostailu jarriko ditugu lurrian, eta gurasoei bat aukeratzeko eskatuko diegu. Ondoren, zeren arabera egin duten hautaketa galdetuko diegu, alabari edo semeari zein erreferentzia erakusten dieten azaltzeko; izan ere garrantzirik ez duen xehetasuna dirudien arren, panpinen ereduak jarraitzen dituzten personak dira gazteon erreferentzia. Azken hau ere gainerako ariketen moduan komentatu egingo dugu.
- 3. ariketa (20 min) : Hainbat pertsonaiaren argazkiak eta lanbideak erakutsiko dizkiegu, ondoren deskriba ditzaten; adibidez, Barbie edo Nancy-ak . Barbie lanbide askoko panpina esterotipikoa da. Gurasoek panpina hori fisikoaren arabera soilik deskribatzen badute, arazoaz jabetuko dira, pertsona bat ez delako fisikoa bakarrik; bukatzean, ariketa horren azalpena emango diegu beste guztietan bezela.

Bigarren multzoan bi egoera ezberdin jarriko ditugu eta gurasoek egoera horien aurrean nola jokatuko luketen adierazi beharko dute.

- Lehenengo egoera honako hau da: bi alaba dituzu, 15 eta 17 urtekoak, antzeko arropa erabiltzen dute, baina zaharrenari, 17 bete zituenean, kamiseta motz eta estua oparitu zioten, aldiz gazteenari kamiseta arrunta oparitu zioten. Zein da egoera honetako arazoa? Nola sentituko da alaba gazteena?
Ariketa horri 15 minutu eskainiko dizkiogu
- Bigarren egoera honako hau da: 2 seme dituzu, zaharrena herriko saskibaloitaldean dabil, gazteenari, aldiz, ez zaio taldeko kirolak gustatzen, beraz, mendira joaten da. Afaltzen ari zaretela aitona komentario hau egin dio: "Zu noiz hasiko zara kirolen bat egiten? Zure anaia urteak dabil saskibaloiean jokatzen, zuk ere berdina egin beharko zenuke." Semea ixilik geratu da. Zein da egoera horretako arazoa. Ariketa honi 15 minutu eskainiko dizkiogu

Hirugarren multzoan ere bi ariketa mota egingo ditugu:

- Lehenengoan, bideo bat jarriko dugu, bertan, nerabeak agertuko dira beraien esperientzia pertsonala kontatzen eta egin dizkieten komentarioak adierazten. Horiekiko nola sentitu diren esango dute, horrela, gurasoak nerabeek jasan ditzaketan arazoez kontzientziatuko dira, eta komentario desegokiak egitea saihestuko dute. Bideoak 6 minutu inguru iraungo ditu eta hilabetero berri bat egingo dugu taldekide ezberdinekin errepikakorra egin ez dadin.
- Bigarrenean, berriz, gure esperientzia pertsonala kontatuko diegu, eta arazo honi nola aurre egin diogun, entzuten diren ohiko komentarioak albo batera utziz eta geure buruan zentratuz. Azken honi 40 minutu emango dizkiogu, saioa osoari 2 ordu eta 30 minutuko iraupena emanaz.

Saio horietara etortzeko izena eman beharko dute gure webgunean; bertan izen-abizenak eta telefono zenbakia txertatu beharko dituzte.

Euskal Herriko herrietan zentratuko gara, gure saioak euskaraz eman nahi ditugulako izan ere, hau gure hizkuntza da, eta, oraindik ere, jorratu nahi ditugun gaiak gure hizkuntzan behar beste lantzen ez direnez, hizkuntzaren normalkuntzan ere eragin nahi genuke. Hala ere, gurasoren batek saioetara etorri nahi badu eta euskera garbi ulertzen ez badu, azalpenak edota laburpenak elebitan egingo genituzke.

Orobat, 4 herri ezberdinetara joatea pentsatu dugu; eta saio bat baino gehiago eskainiko ditugu, beharrezkoak iruditzen zaizkigunak. Gure balio nagusietako bat iraunkortasuna den heinean, arrasto ekologikoa alaitzen arinena izan dadin, herriz herri mugitzeko garraio-publikoa erabiliko dugu, horrela bide batez ekosistema zaintzen ariko gara kutsadura murriztuz. Zailtasunak izango ditugula aurreikusten dugu: litekeena da politikoki zuzenak diren erantzunak jasotzea. Hala ere, saio hauetatik irteerakoan pentsatzeko moduan eragiten da gure xede nagusia. Badakigu jendearen aurrean agian ez dituztela haien akatsak onartuko, baina etxera iristean haien seme-alabekin duten harremanak hobera egiten badu, gure lanak arrakasta izan duen seinale izango da.